

Artisau jaun andereak,

Gutun honen bidez zuzendu nahi gatzaizkie, Marieniako lautadaren betonatzeko deituak izan daitezkeen artisau guzietarako.

Justiziak lehen eraikitze baimena deuseztatu ondoren, bigarren baimen modifikatzaile bat pausatu zuen Bouygues-ek 2023ko agorrilaren 18an, gaurko egunean herriko etxearen esku da aztertzea. Auzitan ezarri genuen THPari buruzko epaiaren zain gira.

Tokiko populakuntzaren etxebizitza beharrei erantzuteko egina dela azaltzen digute proiektu hau defenditzen dutenek, baina argumentu hau estakuru hutsa da.

Kanbon berean jadanik urbanizatuak diren lurretan, hainbat eta hainbat proiektu gara daitezke :

- Gaurko egunean Bouygues-ek herri erdian 60 etxebizitzako proiektua du
- Habitat Sud Atlantiques-ek 14 etxebizitza eraikiko ditu Nivaldia-n
- Juliette egoitzan 6-8 etxebizitza aurreikusitako dira
- Maison Basque osasun zentro ohia berritzen ari dira 6 apartamendu eraikitze
- Iguzkian auzoan 54 etxebizitzako proiektua aurreikusia da
- Beaulieu eta inguruak erosi ditu Kanboko herriak, etxebizitza andana eraikitze aukera ematen duena.

Soliha-k berriki egin duen ikerketa batek plazaratu digu Kanbon 107 eraikin estrukturalki betegabeak direla : 84 apartamendu, 23 etxe.

Horrenbestez, erran dezakegu Kanbon, jadanik urbanizatuak diren lurretan etxebizitzak sortzeko aukerak badirela.

Heldu diren urteetan, tokiko artisautzat lana izanen da beraz gorago aipatuak izan diren etxebizitzak eraikitze edota berritze.

Marieniako lurren salmenta ez da behar bati erantzuteko egina izan; salmenta espekulatiboa da, diru gosez diren gutti batzuren asetzeko bideratua, ondoko belaunaldien kaltera. Gaurko egunean kriminala da esku artean gelditzen zaizkigun laborantza lur ederrak desagertaraztea. Oroitaraz dezagun 64ko Laborantza Ganbarak Marieniaren eraikitzeari buruz ezezko iritzia eman zuela « laborantzarako lur hauek duten interesa » azpimarratuz eta Prefetak berak dudak agertu zituela « laborantza aktibitatea behar zen neurrian kondutan hartua izanenez » galdezkatuz. Kanbon hainbat manifestaldi burutu dira, azkenak berrogoi bat traktore eta 1100 manifestari bildu zituelarik.

Gai hau funtsezkoa da gure lurralderako. Populakuntzaren gehiengoarentzat laborantza lurra babesteko premia begi bistakoa da. Klima aldaketak, landu daitezkeen lurren eskasteak, laborarien biziraupenak, gure lehentasunak berriz aztertzea behartzen gaituzte.

2014az geroztik Marieniako betonatzearen kontra mobilizatuak gira eta kontra borrokatzen segituko dugu proiektuak xutik diraueno. Zuen gizarte eta ingurumen ardurari dei egiten diogu, zuen hiritar konzientziari dei egiten diogu, gurekin batera lan egin dezazuen, hel lekizkizuekeen galderei ezezkoa emanaz.

Anartean, har itzazue gure agurrik beroenak.

Marienia Ez Hunki !

CADE
Lurzaindia
Nahi Dugun Herria
Kanbon 2023ko azaroaren 15ean